



**UNHCR
ACNUR**

Agência da ONU para Refugiados

ERREFUXIATUEI BURUZ IRAKASTEA

9 ETA 12 URTE
BITARTEKOAK

**LEHEN
HEZKUNTZARAKO
IKASKETA-PLANA**

Baliabide gehiago: acnur.org/ensenar-sobre-las-personas-refugiadas.html

Itzulpena:



BABESA 47

© 2017 ACNUR

HASI AURRETIK

Ikasgaien plangintzan errefuxiatuak, asilo-eskatzaileak eta migratzaileak sartzeari buruzko oharra:



Errefuxiatuen, asiloaren, nazionalitatearen eta migratzaileen inguruko jarduerak egin aurretik, har ezazu une bat zure gelako ikasleei buruz hausnartzeko.

Horietako batzuk errefuxiatuak dira, asiloa eskatzeko prozesuan daude edo aberrigabeak dira? Kasu horretan, pentsatu haiekin eta gurasoekin hitz egitea, adinaren arabera.

Ahal bada, sar itzazu gurasoen eta haurren ideiak eta iruzkinak saioetan, eta eska iezaiezu galderei erantzuteko, baldin eta gai horiei buruz hitz egin nahi dutela espreski adierazi badute.

Aberrigabeek ez dute inongo herrialdetako nazionalitatea. Aberrigabearen izaera hainbat egoeraren ondorio izan daiteke. Adibidez, baliteke talde etniko edo erlijioso batzuk lege nazionalak ez onartzea herrialde horretako herritar gisa; haur batzuk gurasoen

herritasun-herrialdetik kanpo jaiotzen dira, eta ezin dute herritasuna lortu.

Munduko hainbat herrialdetako legeek ez diete amei beren nazionalitatea beren seme-alabei transmititzen uzten. Aberrigabeek zailtasunak izan ditzakete oinarrizko eskubideez gozatzeko, hala nola hezkuntza, osasuna, enplegua, mugitzeko askatasuna eta abar. Gauza horiek gabe, askotan oztopoei eta etsipenei egin behar izaten diete aurre.

Ikasgelan haur aberrigabeak badituzu, zuhurra izan "herrialdea" edo "nazionalitatea" bezalako hitzak erabiltzean. Horien ordean, "zuen etxea" edo "zuen kultura" bezalako hitzak erabil ditzakezu.

LABURPENA

Ikasketa-programa hau lau ataletan banatzen da:

1. Aniztasuna ospatzea

Atal honek mundu osoko kulturak aurkezten ditu, eta haurrak kultura horietako ideiak, jolasak, musika, agurrak eta janaria aztertzeraz eta haiekin jolastera bultzatzen ditu. Haurrak pertsonen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak konparatzeraz, kontrastatzeraz eta horietaz gozatzeraz animatzen dira.

Ikaskuntza-helburuak

Munduko toki desberdinetako pertsonen elkarri eragiteko eta adierazteko modu desberdinak dituztela ulertzea.

Desberdintasun horiek gure mundua leku anitz eta aberats bihurtzen dutenak direla ulertzea.

Etxean, kultura berriak esploratzea, aurkitzea eta horiei buruz hitz egitea.

2. Etorri berriak ulertzea

Atal honetan etorri berriei harrera gelan nola egin ikusten da. Bertan, hizkuntza berri bat ikastea, jolas berrietan jolastea, lagun berriak egitea eta eskola batean etorri berria izatea zer litzatekeen aztertzen da.

Ikaskuntza-helburuak

Ulertzea eskolan eta ikasgelan berria izatea zergatik izan daitekeen beldurgarria eta zirraragarria.

Gelako haurrekiko enpatia sustatzea.

3. Giro baketsua sortzea

Atal honek zenbait klase-arau garatu eta errespetatzera bultzatzen ditu haurrak, klase baketsu bat mantentzeko. Haurrak beren portaerari buruz eta horrek gelako gainerako kideengan izan dezakeen eraginari buruz hausnartzera bultzatzen ditu, bai eta beren buruarengan eta besteengan duten portaera positiboa balioestera ere.

Ikaskuntza-helburuak

Nire baitan –ikasgelan bereziki– sortzen diren sentimenduak ulertzea
Sentipen horiek hainbat modutan erreakzionarazten nautela ulertzea
Ikasgelan elkarrekin nola lan egin dezakegun ulertzea, guztiontzako esperientzia zoriontsuagoa eta hobea sortzeko



LEHEN HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOA

1. Kultura eta herrialde desberdinen aniztasuna ikasteko eta balioesteko jarduerak

Haurren mugak irekitzeko eta kultura eta herrialde desberdinetan dauden antzekotasunak eta desberdintasunak antzemateko aukera bat da. Aurkitu aukera bat leku desberdinetatik datozen zure gelako haurren gurasoekin hitz egiteko, eta galdetu ea prest dauden jarraian deskribatzen diren jardueretan parte hartzeko.

Jarduera hauetan, herrialde edo kultura bateko jarduera edo ohituretako baten ordeztuz, guraso horien herrialdeko edo kulturako jarduerak erabil ditzakezu, baldin eta prest badaude eta zurekin lan egiteko denbora badute. Har ezazu une bat ziurtatzeko gurasoak eroso sentitzen direla zuk gai honi buruz irakastearekin eta gonbidatu itzazu egiten dituzun saioetan parte hartzera.

1.1. Agurtzeko modu desberdinak

Ezarri araua: "Agurtu zaituztenean, aurrera jarraitu behar duzue eta gutxienez beste lau pertsona modu berean agurtu". Jarraian, erakutsi norbait agurtzeko antzinako modu bat, esanez edo agurra eginez. Gero, agur garaikideago bat egin dezakezu modu berean.

Eskatu haurrei elkar agurtzeko eta agur horien artean dauden desberdintasunei buruz hausnartzeko. Galde iezaiezu beraien herrialde edo kulturetan agurtzeko moduei buruz. Nola agurtzen dituzte gurasoak edo aitona-amonak eta nola agurtzen dituzte lagunak? Aurkitu al dezakete paralelismorik agurtzeko modu zahar eta berrien artean? Edo herrialde edo kultura desberdinetako agurren artean?

Jarduera bat egiten saia zaitezke, zeinean haurrek gutxienez lau pertsona agurtu behar dituzten, astebetetz goizero agurretako bat erabiliz.

1.2. Agurrak mapan

Ikasi nahi dituzun garai, kultura eta herrialde guztietako agurrak finkatu ondoren, begiratu mapamundia klasearekin eta begiratu nondik datozen agurrak. Bestela, egin jarduera hau kulturaz kultura edo herrialdez herrialde. Jarri pegatina bat leku bakoitzean.

Banatu haurrak taldeka, leku horiei buruz jakin dezaketena eztabaidatzeko eta idazteko.

Animatu hitz egitera eta herrialdeei buruz –berena barne– pentsatzen eta sinesten dutena edo dakiten guztia idaztera. Kostatzen bazaizue, saiatu hizkuntzaren, janariaren edo musikaren inguruan galdetzen.

Galdetu ea leku horietako norbait ezagutu duten eta ea han egon diren. Gorde oharrak, gero erabiltzeko.

1.3. Munduko musika

Aukeratu aipatu dituzuen kultura edo herrialdeetako bat. Jarri folk musika eta eskatu haurrei marrazteko, deskribatzeko, erritmo bat egiteko edo dantzatzeko. Egin galdera hauek:

Zer emozio sentitzen dituzte?

Zer kolore ikusten dituzte musika entzutean?

Musika animalia bat bezala irudikatu beharko balute, zein animalia izango litzateke?

Musika amaitu ondoren, eskatu haurrei musika nondik datorren asmatzeko eta herrialde edo kultura zuzena identifikatzeko, orain arte ikasi duten herrialde eta kulturen artean. Jarraitu jarduera honekin beste folk musika batekin eta gero musika garaikideagoarekin.

Errepikatu jarduera folk musikako kantu batekin eta dauden herrialdeko musika garaikideko beste batekin.

Banatu ikasleak talde txikietan eta eskatu berdintasunak aurkitzeko beren kultura edo herrialdeko folk musikaren eta inguruko musika garaikidearen artean. Eskatu gauza bera egiteko entzun dituzuen beste kantu batzuekin. Azkenik, eska iezaiezu paralelismoak aurkitzeko jatorrizko tokiko folk musikarekin eta entzun dituzten kantu berriekin.

Hitz egin jarduera horiei buruz ezagutu ditzakezun musika irakasleekin, eta, jarduera gehigarri gisa, eska iezaiezu abesti baterako letrak idazteko edo musika klasean musika konposatzeko, entzun dituzuen kantuetako baten estiloarekin.

1.4. Munduko janaria

Talde txikietan, eskatu ikasleei gosaltzen dutena kontatzeko. Ikasgelako eztabaida bihur ezazu, bakoitzak jaten duenari buruzko informazioa eman dezan talde osoari.

Egin elikagaien zerrenda bat eta galdetu ikasleei ba al dakiten nola prestatu. Gosariko errezetak prestatzeko moduari buruz dakiten guztia idazteko eskatu. Eseki itzazu horman eta egin kopiak denentzat.

Hitz egin duzuen herrialdeetako gosari herrikoiak aurkeztu.

Ahal izanez gero, antola ezazu sukaldaritza-eskola bat, ikasleek gosaria prestatu eta askaria egiteko orduan elikagaiak jan ditzaten. Eskegi errezeta ikasgelan gainerakoekin batera, eta banatu bakoitzari kopia bat.

Zeregin gisa, ikasleek beren familientzako gosarietako bat prestatzea eska dezakezu. Kontuan izan familia batzuek ez dutela horretarako aurrekonturik izango. Kasu horretan, begiratu ea elkarrekin kozinatu dezaketen gelan.

1.5. Munduko jolasak

Talde txikietan, aurkeztu hurrei herrialde eta kultura desberdinetako jolasak. Emaiezu 20 minutu aukeratu dituzten jolasetan jolasteko, horiek txandakatu.

Aire librean jolasteko jolasak badira, ikusi jolas-ordua baino 20 minutu lehenago atera daitezkeen elkarrekin jolasteko.

Jolasak amaitzean, elkartu gela osoa jolasen arauak eta horietara nola jolastuko duten laburbiltzeko.

Galdetu umeei jolas hauek lehendik jolasten zituztenen antzekoak diren.

Galde iezaiezu zer gustatu zaien gehien eta zer gustatu zaien gutxien jolasetatik.

Talde txikietan edo banaka, eskatu hurrei jolasen arauak elkarrekin idazteko eta ikasgelarako poster bat egiteko. Modu alternatiboan, talde txikietan, beste ikaskideei jolas bat aurkez diezaiekete, aukeratutako jolasaren arauak eta jolasteko modua azalduz.

2. Ikasgelan ikasle berriak hartzeko esperientzia ulertzen laguntzeko jarduerak

2.1. Hizkuntza berri bat ikastea

Eman haur bakoitzari ulertzen ez duten testu bat duen orri bat. Eska iezaiezu galdera osagarri batzuei erantzuteko, adibidez:

“Zer esan nahi du lehenengo esaldiak?”

“Galdera edota esaldi normala da?”

Emaiezu 10 minutu

Hurrei ulertzen ez duten hizkuntza

batean testuak ematearen alternatiba gisa, jarduera-orri bat egin dezakezu galdera batzuk ausaz idatziz eta hitzei buelta emanez; webgune hau erabil dezakezu: textmechanic.com/text-tools/obfuscation-tools/reverse-text-generator

Galderei erantzuten amaitutakoan, jaso orriak eta kalifika itzazu. Banatu klasea talde txikietan eta eska iezaiezu pentsatzeko zergatik eskatu diezun hori egiteko. Eztabaida sortu taldean.

Eska iezaiezu beren gelako hizkuntza hitz egiten ez duten etorri berrien esperientziei buruz hausnartzeko.

Eskatu ikasleei eskolara iritsi berri den batentzat desberdinak izango liratekeen beste gauza batzuetan pentsatzeko eta euren artean horri buruz hitz egiteko.

2.2. Zer ikasi dugu?

Har itzazu hurrek 1.2 jardueran herrialde eta kultura desberdinez pentsatzen zutenari buruz hartu zituzten oharrak. Galdetu hurrei zer ikasi duten

herrialde eta kulturei buruz eta zer datorren bat hasierako ideiekin. Agurrak, hizkuntza, jolasak, janaria edo musika izan daitezke.

Galde iezaiezu ea pentsatzen duten beren klasera iritsi diren ikasleek aurrez pentsatutako ideiak izan ditzaketela beren herrialdeari edo klaseari buruz.

Azkenik, eskatu hurrei talde txikietan banatzeko eta beren herrialdeari eta klaseari buruzko gida bat idazteko ikasle eta familia berrientzat. Gida hau eskolan bana liteke familia berrientzat.

3. Ikasgela baketsua eta guztiontzako ikaskuntza-giro eraikitzailea sortzeko jarduerak

3.1. Niregan bakea sortzea

Taldean, eskatu ikasleei pentsatzeko triste, haserre edo zapuztuta sentitu diren aldietan.

Gogora iezaiezu horrela senti daitezkeela etorri berriak beren klaseari eta herrialdeari buruzko gauza berriak ikasten dituztenean.

Egin zerrenda bat sentimendu horiek lasaitzeko eta prozesatzeko egin ditzaketen gauza moten inguruan. Eseki zerrenda horman.

3.2. Ikasgelako arau-sorta bat sortzea

Aurreko jardueretan oinarrituta –hala nola jarduera orokorrean edo talde txikietan–, eskatu hurrei ikasgelarako arauak sortzeko. Anima itzazu guztientzat onuragarriak izan daitezkeen arauak pentsatzera, baita etorri berrientzat ere.

Erregela bakoitza sortu ondoren, idatzi paper handi batean eta mantendu arauak ikasgelan zintzilik urte osoan. Galdetu eta anima itzazu haurrak egunean zehar kontsultatzen.

Baliabide gehiago: acnur.org/ensenar-sobre-las-personas-refugiadas.html

Hezkuntza-baliabide hauek Mialy Dermish-ek garatu ditu. Ikasgelako aniztasunari buruzko ikasketa-planen gaineko ekarpena Alain Uwumugambi, Niala Khalil eta Hibatillah Ibrahim